

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 24a

55 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko dirulaguntza, salbuste eta bestelako finantza-harremani (1998-2001) buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).
- Añorbeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([10. or.](#)).
- San Martin Unxeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([14. or.](#)).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko dirulaguntza, salbuste eta bestelako finantza-harremani (1998-2001) buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Kontuen Ganbara ondoko fiskalizazio-txostena egin du: "Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko dirulaguntza, salbuste eta bestelako finantza-harremani (1998-2001) buruzko fiskalizazio-txostena".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko dirulaguntza, salbuste eta bestelako finantza-harremani (1998-2001) buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Arrese Fundazioa eta Corellako Udala (2. or.).
 - II.1. Arrese Fundazioa (2. or.).
 - II.2. Arrese Fundazioaren eta Corellako Udalaren arteko finantza-harremanak. (3. or.).
 - III. Helburua, norainokoa eta mugak (6. or.).
 - III.1. Helburua (6. or.).
 - III.2. Norainokoa (6. or.).
 - III.3. Mugak (6. or.).
 - IV. Ondorioak (7. or.).
- Corellako Udalak eta Arrese Fundazioak txostenari buruz egindako iruzkinak (8. or.).

I. SARRERA

2001eko abenduaren 4an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatuta, Kontuen Ganbarari eskatzea "Corellako Udala eta Arrese Fundazioari buruzko afera guztien gaineko legezketasun kontrola eta fiskalizazio txostena" egitea.

Eskari hori betetzeko, Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2001eko jarduketa programan arestian deskribaturiko eskariaren xedeari buruz fiskalizazio txosten bat sartu da.

Eskari hau aurreko baten jarraipena dela interpretatu dugu, hain zuzen ere fundazio horren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremani buruzkoa. Hari dagokion txostena 2001eko uztailan aurkeztu genuen Nafarroako Parlamentuan (2001eko urriaren 5eko 98. NPAOa).

II. ARRESE FUNDAZIOA ETA CORELLAKO UDALA

II.1. ARRESE FUNDAZIOA

Arrese Fundazioa (hemendik aurrera, Fundazioa) 1985eko martxoaren 15eko eskritura publiko batez eratu zen Ongintzarako eta Irakaskuntzarako Fundazio moduan, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko 44. legean ezarritakoaren babesean. 1985eko maiatzaren 29an, Nafarroako Gobernuak gizarte interesekotzat jo zuen fundazioa, eta 1999ko irailaren 21ean Nafarroako Gobernuaren Fundazioen Erregistroan inskribatu zen.

Fundazioaren ezaugarri nagusiei buruzko azterketa eta Nafarroan fundazioek oro har duten markoari buruzkoa luze eta zabal azaldu genituen Arrese Fundazioari buruz ganbera honek eman

zuen aurreko txostenean (98. NPAO). Hartara jo daiteke.

Hala eta guztiz ere, txosten honen helburua bere testuinguruan jartzeko, komeni da fundazio horren estatutuetan jasotako zenbait alderdi gogoraraztea, Corellako hiriarekin dauzkan harremani dagozkielako.

- Hauek ditu helburuak, besteak beste:

1. "Corellako ondare artistiko eta historikoa zaintzen laguntzea, eta La Encarnación Museoa eta Oinetxe Museoa gordetako koadroak, tailak, erretaulak, eskulturak, altzariak, bildumak, liburuak eta agiriak hirian geratuko direla bermatzea.

2. Corella hiriari eta Nafarroari heziketa eta kultura elementuak ematea, ikerlariei, eta jendeari oro har, museoetako aretoak, haren liburutegia eta dokumentazio-artxiboak erabiltzeko aukera emanez."

- Fundazioaren ondasunen artean, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

1. "Corellatik ezin mugituko diren ondasunak dira "La Encarnación Museoa" eta Oinetxe Museoa, haietan dauden arte lan guztiekin."

- Fundazioaren gobernuari buruz, ondokoak azpimarratu nahi dugu:

2. "Patronatuko Batzarrak gutxienez ere 9 kide eta gehienez ere 13 izanen ditu; ondokoak jaitzetik izanen dira Patronatuko kide:

- d) Corella hiriko alkatea."

II.2. ARRESE FUNDAZIOAREN ETA CORELLAKO UDALAREN ARTEKO FINANTZA-HARREMANAK.

Corellako Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta Arrese Fundazioaren arteko finantza-harremanak ondoko multzoen arabera sistematizatu daitezke, Udalak igorritako informazioari jarraituz:

- Finantza-salbuespenak.
- Dirulaguntzak.
- Lursail baten salerosketa, Udalaren eta Fundazioaren artekoa.

Salbuespen fiskalak

1998tik 2001era bitartean, Udalak Fundazioaren ondasunen hirilur kontribuzioaren ehuneko 100eko hobaria eman du; hona xehetasunak (kopuruak pezetatan daude):

Ekitaldia	Oinetxe Museoa	La Encarnación Museoa
1998	212.803	145.731
1999	218.714	149.779
2000	223.096	168.994
2001	231.064	175.030
GUZTIRA	885.677	639.534

Salbuespen horiek guztira 1.525.211 pezeta egiten dute.

Fundazioentzako salbuespen fiskalak, funtsean, Fundazioen eta babes jardueren tributu-araubidea erregulatu zuen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean jasota daude; udal tributuei dagokieenez -30.etik 32.erako artikulua-, kontribuzioei eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) baizik ez ditu jasotzen legeak.

• 30. artikulua kontribuzioari buruzkoa da, eta bertan ezartzen da salbuespen fiskala edukiko dutela fundazioa titular duten ondasunek, baldin eta "beti ere kontraprestazioen bidez hirugarrenei lagatako ondasunak ez badira, fundazioaren xede sozial edo helburu nagusia lortzeko iharduerei lotuak baldin badaude eta, ezertan baino lehen, fundazioaren helburu edo xede nagusiari lotuta ez dauden ustiapen ekonomikoetan ez badira erabil-tzen."

• 31. artikulua jarduera ekonomikoen gaineko zergak hartzen ditu hizpide. Udalaren informazioaren arabera, ez da salbuespen fiskalik izan zerga horretan, Fundazioak ez baitu jarduera ekonomikorik.

• 32. artikulua konpentsaziorako prozedura ezartzen du. Legeak dioenez, fundazioak eskatu egin beharko ditu salbuespen fiskalak, eta, eska-bidearekin batera, aurkeztuko du Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuak fundazioa tributu-arabide bereziaren pean dagoela dioen ebazpena. Udalak, bestalde, Nafarroako Gobernuari horiek itzultzeko eskatuko dio.

Halaber, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak dio, 136. artikuluko i) letran, interes kulturalako ondasunak, espresuki halakotzat jota badaude, kontribuziotik zuzenean salbuetsita daudela, hala ezartzen baitute ondare historiko-artistikoari buruzko arauak.

Salbuespen horiek zergaren errolda egitean zuzenean hartzen dira kontuan, eta, beraz, ez dira aurrekontu eta kontabilitatean islatzen.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarako dirulaguntza (EIOZ).

2000ko martxoaren 9an, Udaleko Gobernu Batzordeak, laburbilduta, honako erabakiok hartu zituen:

1.- La Encarnación Museoa zaharberritu eta egokitzeko proiektua gauzatzeko baimena eman zitzaion Fundazioari. Proiektuaren aurrekontua 114.441.800 pezetakoa zen.

2.- Fundazioak hurrengo zenbatekoak ordaindu beharko zituen 2000n, zeinak behin behineko likidazio gisa zenbatu baitzituen aurreko urteko aurrekontuak.

a) Ordaindu beharreko obra-tasa: aurrekontuaren ehuneko 0,5, hots, 572.209 pezeta.

b) EIOZaren zenbatekoa: aurrekontuaren ehuneko 3,5, hots, 4.005.462 pezeta.

Zenbatekoa, guztira: 4.577.672 pezeta.

3. Zenbateko hori egiten zuen dirulaguntza ematea erabaki zen, "kontuan hartuta bai eraikinarak zuen interes kulturala, bai Udalak eta Fundazioak izenpeturiko hitzarmena", 4. klausulak, hain zuzen ere, honela baitio: "Udalak berretsi egiten ditu Nafarroako Gobernuak 1985eko maiatzaren 29ko erabakiaren bidez Fundazioari emaniko udal tributu guztietako onura eta salbuespen fiskalak."

Dirulaguntzaren ondoriozko gastua nahiz aipaturiko bi tributu figurek eragindako dirusarrera teorikoek ez zaizkio 2000ko aurrekontuari egozten.

Tributuen konpentsazio hori dela eta, komeni da Toki administrazioari buruzko Foru Legeko 223. artikulua dioena gogoratzea: ezinen zaie ez zuzeneko ez zeharkako laguntza ekonomikorik eman partikular nahiz entitateei, zein bere ogasunaren tributuen ordainketa dela eta, baldin eta legean aurreikusi gabeko salbuespen fiskalak nahiz zorren konpentsazio edo horien gutxitzea badakarkie. Halaber, aipaturiko foru lege horretako 266. artikulua dio toki entitateek ezin dutela foru legeetan ezarritako ez bestelako salbuespenik egin. Horrela, fundazioen araubide fiskal berezia arautzen duen foru legeak kontribuzioetarako eta JEZerako besterik ez ditu ezartzen hobariak.

Azkenik, indarrean dauden arauekin bat eta Udalaren ordenantza fiskalarekin bat, tributugai ziren obrak amaituta, subjektu pasiboak horien kostuari buruzko amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, eta Udalak, hala behar bada, aurreko tributuen behin betiko likidazioa egingen du amaierako zenbateko hori oinarri hartuta.

Terrenoaren salerosketa.

1999ko maiatzaren 26an eginitako Osoko Bilkura berezian, besteak beste, honako erabakiak hartu ziren:

1.- 1999ko aurrekontua aldatu eta kreditu berezi bat onetsi zen; horrela, gastu-kontusail bat sortu zen, "kirol instalazioetarako terrenoak erostea" izenekoa, 109,5 milioiko kreditua zuena; bestetik, dirusarrera-kontusail bat ere sortu zen, "kirol instalazioetarako terrenoak erosteko mailegua" izenekoa eta zenbateko bera zuena.

2.- 17 poligonoko 678 lurzatian zeuden terrenoen –kirol instalazioetarako ziren– salerosketari buruzko hitzarmena egitea onetsi zen Arrese Fundazioarekin. Hitzarmenetik honako hauek azpimarratuko ditugu bereziki:

- Fundazioak La Encarnación Museoa zaharberritzeko obrak azkartu egin nahi ditu, eta Udala bat dator horrekin, hiriarren bizi kultural eta turistikoa eragin handia izanen baitu.

- Bestalde, Udalak kirol hiri berri bat eraiki nahi du, eta haren iritziz lekuri egokiena Fundazioaren finka da, bai duen tamainagatik –87.094 m²–, bai duen kokagune eta dituen zerbitzuengatik –ura, sarbideak, balizko zabaltzeak...–. Terreno hori Arreseren alargunak eman zuen dohaintzan; ordainetan, hil arteko pentsio bat jaso zuen –300.000 pezeta hilero, urtero gaurkotu zitekeena–. Zama hori desagertua da egun, onuraduna hila baita.

- Hitzartutako salneurria 100 milioikoa da; salerosketa-kontratua sinatzean –2000ko urtarrilaren 31 baino lehenago sinatu behar da–, erdia ordaindu beharko da, eta beste erdia 2000ko abenduaren 31 baino lehenago.

- Gainera, finka hori ureztalur bihurtzeak eragindako gastu eta amortizazioak Udalaren kargu izanen dira; horretarako, Udalak Fundazioa ordeztu eta haren leku juridikoa hartuko du. Udalak bere gain hartuko ditu, orobat, salerosketak eragiten dituen gastu eta zerga guztiak. Lehenengo kalkuluen arabera, bi gastu bloke horiek 9,5 milioi egingen dutela uste da.

Osoko Bilkurari aurkeztutako proposamenarekin batera, txosten hauek aurkeztu ziren:

A) Udal idazkaritzaren txostena. Txostenak dio, besteak beste, ezen eskuratzeak salerosketaren baldintza formalak bete behar dituela; horiek, bereziki, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean jasotzen dira eta Nafarroako toki entitateen ondasunei buruzko Erregelamenduan. Horrela, txostenak dioenez, erosketa zuzena "jus-

tifikatuta dago, Udalbatzak kontratuan agertzen den finka horixe eskuratzeko nahia adierazi baitu, eta eskaintza mugatua izatearen salbuespena aplikatu daiteke”. Halaber, Osoko Bilkuraren esku-mena dela dio.

B) Kontu-hartzaitzaren txostena. Lehenik, aipatzen du urte askoko gastua dela, eta Osoko Bilkurak baimendu behar duela. Bigarrenik, hitzarmena sinatu aurretik, eta 1999ko aurrekontuan dirurik ez dagoenez, esaten du aurrekontua aldatzea onetsi behar dela –kreditu berezi bat– eta finantzaketa ere onetsi behar dela –momentuz, mailegu baten bidez eginen da.

C) Udal arkitektoaren txostena. Terrenoaren balioa zenbatesteko, ez du kontuan hartzen katastroko balioa, errealitate oso urrun baitago. Ondorioz, oso gertu egoteagatik harekin pareka daitezkeen terrenoen salneurriak erabiltzen ditu; horrela, erreferentzia gisa hartzen du hormigoizko prefabrikatuak egiteko enpresa bat jarri diren terrenoak: 750 PTA/m².

Horrenbestez, finkaren prezioa hau da:

$$86.430 \text{ m}^2 \times 750 \text{ PTA/m}^2 = 64.822.500 \text{ pezeta.}$$

Beranduago, 2000ko urtarrilean, arkitektoak eranskin bat gehitzen dio balioari buruzko aurreko txostenari, finkaren behin betiko neurketa egin baitzen (87.094 m², eta ez aurreko txostenean ageri zen gutxi gorabeherako neurria: 86.430 m²). Hori horrela, balioa hau da:

$$87.094 \text{ m}^2 \times 750 \text{ PTA/m}^2 = 65.320.500 \text{ pezeta.}$$

2000ko urtarrilaren 12an, alkateak 2000ko aurrekontura beste kreditu bat ekartzea onesten du, hala terrenoak erosteko dagoen gastu-kontu-sailera –109,5 milioi pezetako kreditua–, nola diru-sarreretara, finantzaketarako mailegua baitago aurreikusia –109,5 milioi.

Proposamenarekin batera, Kontu-hartzaitzaren txostena aurkeztu zen, non adierazten baita kreditu hori 2000ko aurrekontura ekarri behar dela, ekitaldi horretan aitortuko baita gastua. Orobat, esaten da mailegua, momentuz behintzat, ez dela formalizatuko. Geroztik, Udalak esan digunez, zenbait mailegu eskatu dira, horietako bat Diruzaintzakoa, horrela diruzaintzako beharrei aurre egin ahal izateko.

2000ko urtarrilaren 19an eginiko osoko bilkuran, behin betikoz formalizatu zen salerosketa, eta hitzartutako baldintzei eutsi zitzaizen: salneurria, salerosketaren ondoriozko gastuak, aurreko zamak eta ordaintzeko epeak. Operazioaren kostua, gutxi gorabehera 109,5 milioikoa izan zela kalkulatu da.

2000ko urtarrilaren 28an, Udalaren eta Arrese Fundazioaren lehendakariaren arteko salerosketa kontratua eskritura publikoan jarri zen, aurretik hitzartutako baldintzekin bat.

50 milioiko lehenbiziko ordainketa 2000ko urtarrilaren 31n egin zen; 50 milioiko bigarren eta azken ordainketa, 2001eko urtarrilaren 3an.

Terrenoaren benetako kostua, gastu guztiak kontuan hartuta eta Kontu-hartzaitzaren txostenarekin bat, 103.207.726 pezetakoa da. Zenbateko horrek hauek hartzen ditu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Terrenoaren balioa	100.000.000
Eskriturak eta erregistratzeak eragindako gastu eta zergak	138.041
Erosketaren aurreko birpartzelazio prozesuaren ondoriozko epai judizial baten ordainketa	588.433
Interes gabeko mailegua, birpartzelazioa dela eta	2.481.252
Terrenoaren kostua, guztira	103.207.726

Beraz, kostu hori, guztira, Osoko Bilkuraren erabakiak aurreikusitakoa (109,5 milioi pezeta) baino txikiagoa da.

Birpartzelazioaren kostuari aurre egiteko interesik gabeko mailegua sei hilero amortizatzen da, eta 15 urteko epea du. Horren zenbatekoa erabateko gastutzat hartu da, nahiz eta Udala amortizazio koadroetan ezarritako epeetan ordaintzen ari den.

Finkaren hirigintza egoera. Udal idazkaritzaren txostenaren arabera, hirigintza dela-eta, terrenoaren egoera hau izan da:

- Udal plana onetsi artean indarrean izaniko arau subsidiarioetan –1999ko irailaren 7an onetsi zen plana–, terrenoaren sailkapena zen “ez-urbanizagarri generikoa”.

- Planak indarra hartu zuenean, terrenoaren sailkapena aldatu eta “ez urbanizagarria-jendeguneen ingurua” bihurtu zen. Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Legearen 38. artikulua arabera, “halakotzat jotzen dira jendegune horien mugakide izateagatik babestu behar diren terrenoak, jendeguneok etorkizunean zabaltzea, edo haien egitura edo itxura ez oztopenazeko”.

- Beranduago, 2001ko uztailaren 4ko foru agindu baten bidez, hirigintza aldatzea behin betikoz onetsi eta aipatu terrenoa hiri lurzati bilakatu zen: dotazioetarako kirol eremu publiko sailkatu

zen. Aldaketa horri jarri zitzaion baldintza izan zen, besteak beste, Udalak aldaketa puntual bat onetsi behar zuela oinezkoentzako eta ibilgailuentzako sarbidearen arazoa konpontzeko NA-161 errepidearen lotunean. Gaiok ebatzi gabe daude oraindik.

Aurreko datak salerosketaren datekin batera aztertuta hau ikusten dugu. Fundazioarekin hitzarmena sinatutakoan –1999ko ekainaren 23an–, arau subsidiarioak zeuden indarrean, eta, beraz, terrenoa ez zen urbanizagarria, ez-urbanizagarri zegoen sailkatuta. Salerosketaren eskritura publikoa egitean –2000ko urtarrilaren 28an–, eta udal plana jada indarrean, terrenoa “ez urbanizagarri-jendeguneen ingurua” zen oraindik. Hirigintza aldaketa gertatu arte itxaron behar izan da terreno horren sailkapena aldatuta ikusteko, hau da, dotazioetarako hirilur bihurtuta ikusteko.

Udalak finka horretan eginiko kirol instalazioen egoera. Helburua da Udalaren kirol instalazio guztiak terreno horietan jartzea; hauek, hain zuzen ere: futbol zelaiak, igerileku estalia eta udarakoa, eta frontoiak. Instalazio horiek ordaintzeko, oraingo kirol instalazioak dauden orubea salduta lortutako diruak erabiliko dira.

Gaur egun, exekutatzen ari da kirol instalazio multzoaren 1. fasea: bi futbol zelai eta haien ondoko instalazioak (aldagelak...).

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. HELBURUA

Parlamentuaren eskaria betetzeko eta Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2001. urterako Jarduketa Programan “Nafarroako Gobernu eta Arrese Fundazioari buruzko afera guztien gaineko legezketasun kontrola eta fiskalizazio txostena” sartu da.

Lan horrekin, ondoko helburuak lortu nahi dira:

1. helburua. 1998tik 2001era bitarteko epean Corellako Udalak Arrese Fundazioari emaniko dirulaguntzak eta eginiko salbuespen fiskalak zenbatestea.

2. helburua. Dirulaguntzek nahiz salbuespenek eta horien helburuek legezketasunaren printzipioa betetzen ote duten egiaztatzea.

3. helburua. Fundazioa eta Udalaren arteko terreno salerosketa legezketasunaren printzipioaren ikuspegitik aztertu.

III.2. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan hartuta, lanak, lehenik eta behin, Fundazioari emaniko laguntza publikoak aztertu ditu, eta, bigarrenik, horiei buruzko arauen betetze maila. Halaber, terrenoen salerosketa kontratuaren legezketasuna egiaztatu da.

Gure lana abiatzeko data gisa, 1998ko ekitaldia hartu dugu; izan ere, Udalak igorritako informazioaren arabera, ekitaldi horretan hasi ziren gertatzen fiskalizazio txosten honetarako garrantzitsuak direnak.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, ganbera honek erabili ohi dituen prozedurak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriara onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz.

Hain zuzen ere, eta Corellako Udalak igorritako ziurtagiria oinarri hartuta, Udalaren eta Fundazioaren artean 1998 eta 2001 urteen bitartean izaniko harremanak islatzen dituzten agiri eta espediente administratibo guztiak berrikusi ditugu.

Salbuespen edo hobari fiskalei dagokienez, azpimarratzekoa da, Arrese Fundazioari buruzko aurreko txostenean ondorio gisa esan zena: “Fundazioa 1999ko irailean geratu zen formalki inskribaturik Fundazioen Erregistroan; orduantxe osatu zen 1996an aurkezturiko eskaria, eta, horrenbestez, Fundazioak onura fiskalez baliatzeko 10/1996 Foru Legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen zituen. Hala eta guztiz ere, de facto, Fundazioak 1996tik 1999ra bitartean araubide bereziari atxikirik balego bezala jardun du, eta, gainera, Foru Administrazioak ez dio horri buruzko inolako ohar-tarazpenik egin.”

Terrenoaren salneurriari dagokionez, salerosketari buruz Udalean dagoen informazioa osatu egin dugu finka horren balorazioa ere eskatuz Nafarroako jabetza higiezinaren agenteen elkargo ofizialari; elkargoak, lanak partitzeko barne mekanismoak erabilita, aditu bat izendatu zuen tasazioa egiteko. Eskatu zen tasazioarekin jakin zen terrenoak zer balio zuen 2000ko urtarrilean, hau da, ez-urbanizagarria zenean.

III.3. MUGAK

Ezaugarri eta kokagune zehatzak dituen ondasun higiezin bat zehaztasunez zenbatesteko zailtasuna izan da lan honi mugak ezarri dizkiona; izan ere, ondasun higiezinaren eskaintza eta eskaria dira benetan salneurria ezartzen dutenak, eta

hori ez da beti bat etortzen benetako balio teoriko-arekin.

Txostenak lau atal ditu; haietan, esparru orokorra eta egindako lanaren helburuak eta ondorioak islatzen dira.

Azterketa lana 2001eko abenduan egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lan honetan esku hartu duten guztiei, eman diguten laguntza-rengatik.

IV. ONDORIOAK

Eginiko lanaren norainokoa eta mugak kon-tuan hartuta, hona hemen ondorio nagusiak.

1. Arrese Fundazioa 1985ean eratu zen, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Konpilazio legearen babesean.

Fundazio honen helburuen artean, Oinetxe Museoa eta Arte Sakroko La Encarnación Museoa dagoen ondare historikoaren kontserbazioa azpimarratu behar da; biak ere Corellan daude.

La Encarnación Museolari dagokionez, nabarmendu behar da 1985etik Nafarroako Museoen Sarean dagoela, eta 1992tik kultur intereseko ondasun gisa deklaraturik dagoela, monumentu kategoriarekin.

Deklarazio hori du, baita ere, Oinetxe Museoa inbentariaturiko ondasun higigarrien multzoak, baina ez eraikinak berak.

2. Corellako Udala eta Arrese Fundazioa: laguntzak, salbuespenak eta finantza-harremanak.

Eginiko azterketaren arabera, 1998tik 2001era bitartean, Udala eta Fundazioaren arteko finantza-harremanak hauek izan dira:

	Zenbatekoa (pezetatan)
Finantza-harremanak	
Salbuespen fiskalak	1.525.211
Dirulaguntzak	4.577.672
Terrenoen salerosketa	100.000.000

3. Salbuespen fiskalak

Udalak, 1998tik 2001era bitartean, Arte Sakroko Museoa eta Oinetxe Museoa direla eta, hirilur kontribuzioaren ehuneko 100eko hoberia eman du. Hoberi horren zenbatekoak 1.525.211 pezeta egiten du.

Salbuespen horiek egiteko, legediak ezarritako prozedurari jarraitu zaio, salbu eta Oinetxe Museoa kasuan -0,88 milioi- hori ez baitago kultur

intereseko ondasuntzat hartua; Fundazioak Oinetxe Museoa halakotzat hartua izan dadin eginiko eskariak, horrenbestez, hoberia emateari buruzko espedientearen jaso behar luke, eta espedientearen behar luke, halaber, fundazioen araubide bereziaren pean dagoela dioen ziurtagiriak ere.

Bestalde, fundazioen tributu-araubidea erregulatu zuen 10/1996 Foru Legearen babesean, Udalak Nafarroako Gobernuari onura fiskalak direla eta eskuratu ez dituen diru kopuruen konpentsazioa eska diezaioke. Orain arte, Udalak ez du eskaria aurkeztu.

4. Obra lizentzia nahiz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) konpentsatzeko dirulaguntza.

2000ko ekitaldian, Gobernu Batzordeak 4.577.672 pezetako dirulaguntza eman zion Fundazioari, Arte Sakroko Museoa zaharberritzeko proiektuaren ondorioz ordaindu behar izan zituen obra lizentziaren tasa eta EIOZa zela eta.

Azterketa egin eta hauek ikusten ditugu:

- Fundazioentzako tributu-araubide bereziak, udal tributuen arloan, kontribuzioak eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) baizik ez ditu hartzen.

- Toki administrazioari buruzko Foru Legeak -223 eta 226 artikulua- eta Toki ogasunei buruzko Foru Legeak -57. artikulua- ezartzen dute ezen araudian ezarritako kasuetan besterik ezin direla egin salbuespen fiskalak; beraz, debekatu egiten dituzte tributu zorrak gutxitu edo konpentsatzen dituzten laguntza ekonomikoak.

Horrenbestez, gure ustez, emaniko dirulaguntza ez dator bat indarrean dauden arauekin; izan ere, udal zergen konpentsazioa egiteko eman zen, eta aukera hori fundazioentzako tributu-araubide berezian jaso gabe dago.

Ganbera honek uler dezake Udalak Arrese Fundazioari obretarako eta irauteko laguntza emateko borondate politikoa izatea, hiriarentzako interesgarria baita Arte Sakroko Museoa izatea. Hala ere, ganbera honek uste du badela legedian beste biderik horretarako; konparazio batera, udal aurrekontuetan aurreikusiriko dirulaguntza izendunak.

Horretaz ari garela, azpimarragarria da, baita ere, EIOZari buruzko Estatuko arauak zergaren kuotaren ehuneko 95era irits daitekeen hoberia ezartzen dutela -Toki ogasunei buruzko Legearen 104.2 artikulua-, baldin eta obrak interes bereziak direla deklaratzeko bada edota onuragarriak udalarentzat, deklarazio hori justifikatzen duten

inguruabar sozial, kultural, historiko-artistikorik izanez gero.

Bestetik, aipatutako udal tributuek sorrarazita-ko zorrak ez du izan islarik 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan, eta emaniko dirulaguntzak ere ez; horrela, gastuak eta dirusarrerak ez konpentsatzearen printzipioa –kontu publikoetan aplikatu beharreko printzipioetako bat– urratzen da.

Azkenik, Udalak, Arte Sakroko Museoaren zaharberitze obren kostuaren azken ziurtagiria –Fundazioak aurkeztua– oinarri hartuta, aipatu tributuak likidatu behar ditu. Gure kalkuluen arabera, behin betiko likidazioak sorraraziko lukeen tributu zorra 2 milioi ingurukoa da.

Gomendioak:

- *Aipatu egoera erregularizatzea indarrean dauden arauetara ekarriz.*
- *Aipatutako udal tributuen behin betiko likidazioa egitea, zaharberitze obren azken ziurtagiria oinarri hartuta.*

5. Terrenoaren salerosketa espedientea.

Operazio hori aztertuta, honako ondorioak azpimarratuko ditugu.

A) Oro har, terrenoa eskuratzeko espedientearen tramitazio formala zuzena izan da; antzeman diren akats bakarrak hauek izan dira:

- Salerosketaren konpromisoa hartu aurretik, aurrekontuaren aldaketak behin betikoz behar zuten onetsia.
- Ondasun horren beharra justifikatzen duen txostenik ez dago, nahiz eta justifikazio hori, nolabait ere, Fundazioarekin sinatutako hitzarmenean jasota dagoen eta Osoko Bilkuraren proposamenarekin ere bai.

B) Udal idazkaritzaren txosten batean dago justifikatuta kontratazio zuzen edo negoziatuaren formula erabili izana; txostenak bi alderdi hartzen zituen oinarri.

- Finka hori eskuratzeko nahia, dauden beharretarako egokiena dela uste baita.
- Horrelako tamaina, kokagune eta zerbitzuak dituzten finken eskasia.

Arrazoi horiek ongi justifikatzen dute erabilitako formula hautatu izana eta gutxienez hiru eskaintza ez eskatu izana, aztertutako terrenoaren baldintza berak zituen beste terrenorik ez baitzegoen.

C) Operazioaren kostua. Terrenoa erostek 103,2 milioiko kostua izan du, guztira. Zenbateko horrek terrenoen ordainketa hartzen du –100 milioi–, bai eta operazioa formalizatzeko beharrezkoak diren zama, gastu eta zerga guztiak.

D) Terrenoaren konparaziozko kostua. Ganbera honek bilduriko informazioaren arabera, aipatu terrenoaren zenbait balio erakusten ditugu hurrengo taulan, aztertutako iturriak oinarri:

Balorazioa	Pezeta/m ²	Guztira (pezetak, milioitan)
Katastroko balioa	16	1,4
Udal arkitektoaren txostena	750	65
Udalarentzat duen benetako kostua	1.148	100
Nafarroako jabetza higiezinaren agenteen elkargo ofizialaren tasazio-balioa	2.500	218

Udalak ordaindutako prezioa, beraz, udal arkitektoak adierazitako balioa baino ehuneko 53 handiagoa da, baina jabetza higiezinaren agenteen elkargo ofizialaren tasazio-balioa baino ehuneko 117 txikiagoa.

Horrenbestez, uste dugu Udalak terreno horiek erosteko ordaindu duen prezioa arrazoizkoa dela udal interesei begira.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

CORELLAKO UDALAK ETA ARRESE FUNDAZIOAK TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIO ETA IRUZKINAK

Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko dirulaguntza, salbueste eta bestelako finantza-harremanei buruzko fiskalizazio-txosten behin-behinekoa jaso dugu, eta alegazioak egiteko aukera dugunez, hau dugu esateko:

1) Salbuespen fiskalak:

Oinetxe Museoaren hiri kontribuzioari dagozkion salbuespenak zuzenean jasotzen zen zergaren erroldean, eta hori fundazioei aplikatzeko zen aurreko tributu-araubidea indarrean zegoenetik egiten zen

2) Obra lizentzia nahiz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga konpentsatzeko dirulaguntza.

Egia bada ere Toki administrazioari buruzko Foru Legeko 223. artikulua mugatu egiten dituela laguntza ekonomikoak, egia da, baita ere, legegilearen borondatea dela onura fiskal zabalak ematea interes kulturalako deklaraturiko ondasunak babesteko neurrietarako (Espainiako ondare historikoari buruzko 16/1985 Legea). Onura horien artean ez dago obren gaineko tasa eta EIOZ, eta ez dira agertzen –ez da dudarik– zerga honen garrantzi ekonomikoa aipatutako legearen ondotik sortu eta handitu delako, eta, ohikoa den bezala, errealitateak aurrea hartzen diolako legegileari.

Hala ere, udal honek ontzat hartzen ditu txostenean aipatutako gomendioak eta horien arabera jarduteko konpromisoa hartzen du.

Corellan, 2002ko otsailaren 1ean.

Alkate-udalburua: José Matías Jiménez Lázaro

Jaun agurgarria:

Corellako Udalaren eta Arrese Fundazioaren arteko finantza-harremanei buruzko fiskalizazio-txostena jaso dugula jakinarazten dizugu.

Idazki honen bidez, hauek adierazi nahi ditugu:

1.- Txostenean jasotako harremanez gain, Fundazioak ez du beste inolako dirulaguntza edo laguntza ekonomikorik jaso, ez Fundazioaren eraikinen mantentze gastuak ordaintzeko ezta museoaren funtzionamendu gastuetarako ere hori jendearentzat irekia izan den urteetan.

2.- Hasieran, Fundazioarengan konfiantza eza azaldu zuen Kontuen Ganbarak, eta horrek min eman zigun; hala ere, pozik gaude orain, txostenak egiaztatu baitu Arrese Fundazioaren eta

haren ordezkarien jokabidea gidatu dituen izan dela Corellarekiko eta Corellako herritarrekiko eskuzabaltasuna, eta ez besterik. Horrela, Udalak eskatu zuenean “El Ombatillo” finka ehun milioi truke erosi ahal izatea, baiezkoa eman genion, eta kontuan izan behar da ehun eta berrogeita hamar milioiko eskaintza bat izan genuela; hala ere, Nafarroako jabetza higiezinaren agenteen elkargo ofizialak eginiko tasazioa baina diru kopuru apalagoa da hori –berrehun eta hemezortzi milioiko balioa eman zion hark txostenean.

3.-“El Ombatillo” saltzearen truke Udalak jasotako diru kopurua La Encarnación Museoaren obrak eta horren BEZa ordaintzeko izanen da osorik, eta, zerbait geratuz gero, Fundazioaren funtzionamenduko gastu arruntetarako izanen da.

4.- Obra lizentziaren nahiz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren (EIOZ) ordaintari dagokionez, ez dirudi zentzuzkoa interes kulturalako deklaraturiko ondasun batean eginiko obra bategatik kobratzea, ondasun horren zaintze gastuak; izan ere administrazioak bere gain hartu behar lituzke osoki.

Gogora dezagun –txostenak ere aipatzen duen zuzenbide komunean, horrelako obren lizentziatarako, % 95era hel daitezkeen dirulaguntzak ematen direla.

Horrenbestez, erabat zentzuzkoa dirudi Corellako Udalak tributu hori konpentsatzea dirulaguntza baten bidez edo diru kopuru hori ordainduz.

Zentzuzkoa dena ez badago jasota indarrean dauden legeetan, legeok aldatu egin beharko dira.

Corellan, bi mila eta biko otsailaren hamaikan.

Arrese Fundazioaren Lehendakaria: José Miguel de Arrese

Añorbeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Añorbeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Añorbeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (10. or.).
- II. Helburua (10. or.).
- III. Norainokoa (10. or.).
- IV. Iritzia (11. or.).
- V. Finantza egoerak (12. or.).
- I. eranskina. Añorbeko Udalak aurkezturiko alegazioak (13. or.).
- II. eranskina. Añorbeko Udalak aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna (13. or.).

I. SARRERA

Añorbeko Udalak 478 biztanle ditu. Garesko eskualdean dago, Iruñeko merindadean.

Ez du inolako erakunde autonomorik eratu bere jarduera burutzeko.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean, Iltzarbe Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean eta Iltzarbe Ibarreko Zerbitzuen Mankomunitatean sarturik dago.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauetarako buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta Añorbeko Udalaren 2000ko aurrekontuko gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauetarako osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

- a) 2000ko aurrekontuen garapena eta betetzea.
- b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.
- d) Zein zen udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Añorbeko Udalaren fiskalizazioa egin du, 2000ko ekitaldiari dagokiona.

Udalak bere eragiketarako Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren arabera erregistratzen ditu (273/1998 Foru Dekretua). Instrukzio hori 2000ko urtarrilaren 1ean ezarri da udal guztietan, horixe baita hura derrigorrez ezartzeko eguna.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauetarako men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzetan eta aurretik udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoetarako.

Muga bezala, aipatu behar da udal inbentarioa behar adina garatu gabe dagoela, horixe baita balantze-egoeretako kontusailik garrantzitsuena; horrek eragina izan du udalaren ondare-egoera aztertzeko guk egindako lanean.

Txosten hau emateko garaian, Añorbeko Udaleko osoko bilkurak ez du oraindik aurrekontuaren likidazioa behin betiko onetsi.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

Azterlana 2002eko urtarrilean gauzatu da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko langileei.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Añorbeko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Honekin batera doan 2000ko aurrekontuaren betetze-egoerak behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian udalak egin dituen eragiketak. Dena den, badaude zenbait aurrekontu-egozketa oker, hain zuzen ere langile gastuei eta ohiko transferentziei dagozkienak, nahiz eta buruturiko udal-jardueraren agerpen orokorrean eraginik ez duten.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENEA

Udal inbentarioaren garapen eskasak –hura izanik, gainera, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoeraren kontusailik aipagarriena– udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare egoerari buruzko iritzia ematea eragozten digu.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Añorbeko Udalak 2000ko abenduaren 31n zerpetzea ezaugarri nagusi duen finantza egoera erakusten du; hain zuzen ere, 48,5 milioi pezetako zor bat dauka, nahiz eta zor hori, zati batean, diruzaintzako gerakin positiboak estaltzen duen.

Diruzaintzako gerakina, 18,4 milioikoa da. Gerakin hori, neurri handi batean, ekitaldiko superabita 16,8 milioikoa izateari zor zaio. Superabita, nagusiki, ekitaldi honetan aldizkakoak ez diren zeharkako zergengatik likidaturiko eskubideek izan duten aparteko garrantziari zor zaio; besteak beste, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga aipatu behar da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Añorbeko udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak eta kontabilitatea modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina honakoak ditu beharrezko:

a) Aurrekontua udal politikaren eta kudeaketaren funtsezko tresna denez, gure ustez komenigarria litzateke aurrekontuei haien garapena eta gauzatzea arautuko duten betetze-oinarri batzuk eranstea, eta aurrekontua bera eta haren likidazioa legez ezarritako epeetan onestea.

b) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

c) Beharrezkoak diren informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko.

d) Gastu guztietarako, kopurua alde batera utzita, justifikazio euskarri egokia emanen duen agiri bat exijitzea, eta kontratazio espediente guztiak behar bezala osatzea.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta zergapetze-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarriak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekarigua ezarriko dira.

f) Idazkari-kontuhartzaileak eta alkateak esku-bideen likidazioa eta obligazioen aitortpena onesteko egiaztagiria guztiak sinatzea.

g) Udal inbentarioa banakako elementuen arabera garatu eta hura balantze-inbentarioaren egoeraren ibilgetuarekin berdinkatzea.

- Finantzen ikuspuntutik, egoera nahiko garbia du, zor handia baitu, diruzaintza-gerakinak partzialki baino betetzen ez duena. Gerakin hori, batez ere, ekitaldiko superabitari zor zaio, baina superabit hori abagunekoa da.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua (pezetatan)		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1 Zuzeneko zergak	12.301.593	12.301.593	12.278.029	73.792,44	% 99,81
2 Zeharkako zergak	16.000.000	16.000.000	17.665.950	106.174,50	% 110,41
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	600.000	600.000	564.681	3.393,80	% 94,11
4 Ohiko transferentziak	13.259.887	13.259.887	15.913.841	95.644,11	% 120,01
5 Ondarearen bidezko diru-sarrerak	13.109.450	13.109.450	13.965.635	83.935,16	% 106,53
6 Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0,00	
7 Kapital-transferentziak	34.693.137	34.693.137	1.407.612	8.459,92	% 4,06
8 Finantza aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9 Finantza-pasiboen aldaketa	15.560.527	15.560.527	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	105.524.594	105.524.594	61.795.748	371.399,93	% 58,56

GASTUAK	Aurrekontua (pezetatan)		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1 Langileen ordainketak	17.446.442	17.446.422	15.272.746	91.791,05	% 87,54
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	13.751.777	13.751.777	12.775.921	76.784,83	% 92,90
3 Korrituak	2.949.240	2.949.240	2.309.149	13.878,26	% 78,30
4 Transferentzia arruntak	2.535.029	2.535.029	3.275.590	19.686,69	% 129,21
6 Inbertsio errealak	64.313.106	64.313.106	6.790.352	40.810,84	% 10,56
7 Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8 Finantza aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9 Finantza-pasiboen aldaketa	4.529.000	4.529.000	4.499.047	27.039,82	% 99,34
Gastuak, guztira	105.524.594	105.524.594	44.922.805	269.991,49	% 42,57

ALDEAK	0	0	16.872.943	101.408,44	
--------	---	---	------------	------------	--

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA: AÑORBEO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK

Añorbeko Udalaren 2000ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txosten behin-behinekoa dela-eta egin beharreko iruzkinak

Añorbeko Udaleko alkate-udalburu José Manuel Urricelqui Lafuentek, Kontuen Ganbarako lehendakariak 2002ko otsailaren 11n emaniko ebazpena dela eta –haren bitartez Añorbeko Udalaren 2000ko ekitaldiaren fiskalizazioa egin da–, ondoko gogoetak egin ditu txostenari buruz:

1. IV.4 atalean aztertutako egoera ekonomiko-finantzarioari dagokionez, agertzera eman behar da Añorbeko Udalaren zorpetzea, 2000ko ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioari dagokionez, hain zuzen ere txostenak aipatzen duena, % 11,27 dela eta zorpetze muga, berriz, % 48,12koa dela; horrenbestez, esan daiteke Añorbeko Udalak ahalmen aski baduela dagoen zorpetzeari

aurre egin ahal izateko, baita inbertsio berriei ekiteko ere.

2. Txostenaren ondorio orokorrean azaldutako gomendioei dagokionez, aipatu beharrekoa da udal honen borondatea dela ondorio horiek bere egin eta praktikan jartzea, udalaren kudeaketa hobetzeko xedez; arreta berezia jarriko dugu udal inbentarioaren garapenean.

Añorbe, 2002ko otsailaren 19an

Alkate-udalburua: José Manuel Urricelqui Lafuete

II. ERANSKINA. AÑORBEO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTU GANBARAK EMAN DIEN ERANTZUNA

Ados gaude udalak aurkezturiko ratioekin, baina kontuan hartu behar da ratio horiek ekitaldian izaniko dirusarrera handi batek distortsionaturik agertzen direla; dirusarrera hori abagunekoa da, eraikuntzen gaineko zergatik baitator, txostenean adierazi bezala.

Finantza ratio horiek ez ditugu sartzen aurrekontu txikia duten toki entitateetan, oso aldakorrak izaten direlako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

San Martin Unxeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko San Martin Unxeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

San Martin Unxeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (14. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
- V. Finantza egoerak (16. or.).

I. SARRERA

San Martín Unxeko Udalak 490 biztanle ditu eta Tafallako eskualdean dago, Erriberriko Merindadean.

Ez du inongo erakunde autonomorik.

Mairagako Mankomunitatean eta Erriberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sarturik dago. Halaber, Erdialdea garatzeko Partzuergoko kidea da.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, San Martín Unxeko Udalaren 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako Gastu eta Dirusarrera Aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen

Estatutuaren Testu Bateratuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

a) Nafarroako 2000ko Aurrekontu Orokorren garapena eta betetzea.

b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzariora legezotasun printzipioen arabera garatzen den ala ez aztertzea.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, San Martin Unxeko Udalaren fiskalizazioa egin du, 2000ko ekitaldiari dagokiona.

Udalak bere eragiketak Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren arabera erregistratzen ditu (273/1998 Foru Dekretua) Instrukzio hori 2000ko urtarrilaren 1ean ezarri da udal guztietan, horixe baita hura derrigorrez ezartzeko eguna.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Muga bezala, aipatu behar da udal inbentarioa behar adina garatu gabe dagoela, horixe baita balantze-egoeretako kontusailik garrantzitsua; horrek eragina izan du Udalaren ondare-egoera aztertzeke guk egindako lanean.

Txosten hau emateko garaian, Udaleko Osoko Bilkurak ez du oraindik aurrekontuaren likidazioa behin betiko onetsi.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasozten dira txostenean.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, San Martin de Unxeko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, salbu ondoko gora-beherengatik:

- Sortzapenaren printzipioaren aplikazioan ez-betetze bat antzeman da jasotako transferentzia arrunten kapituluan; hain zuzen ere, 1.039.347 pezeta ez zaizkio aurrekontuari egotzi.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Udal inbentarioaren garapen eskasak –hura izanik, gainera, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoeraren kontusailik aipagarriena– Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare egoerari buruzko iritzia ematea eragozten digu.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, ondokoak bereziki:

- Aurrekontua onetsi eta likidatzeko epeak ez betetzea.

- Aurrekontuan jasotako gastuetarako ezarritako mugak gainditzea.

- Ez-betetze fiskalak, PFEZaren atxikipean Foru Ogasunean sartzeko epeei dagozkienak.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

San Martin de Unxeko Udalak 2000ko abenduaren 31n finantza-egoera nahiko ona dauka. Diruzaintza gerakin negatiboa 14,5 milioi pezetakoa da, eta transferentzia arrunt moduan kontabilizaturiko gastu ez-ohiko eta abaguneko batzuei zor zaie.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake San Martin Unxeko Udalak honako hau egin duela:

- Aurrekontuak eta kontabilitatea modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

- a) Aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzea, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

- b) Beharrezkoak diren informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko.

- c) Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

- d) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta zergapetze-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarriak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekarua ezarriko dira.

- e) Udal inbentarioa banakako elementuen arabera garatu eta hura balantze-inbentarioaren egoeraren ibilgetuarekin berdinkatzea.

- Ikuspegi finantzariotik, egoera nahiko ona agertzen du, nahiz eta 2000ko finantza-ratioak positiboak ez izan arren; hori ezohiko eta abaguneko gastu batzuk, 18 milioi pezetakoak, transferentzia arruntei egoztearen ondorioa da, bereziki.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**V.1. 2000KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

DIRUSARRERAK	Aurrekontua (pezetak)		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin-betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Zuzeneko zergak	18.442.465	18.442.465	21.760.796	130.785,02	117,99
2. Zerharkako zergak	2.102.428	2.102.428	1.142.610	6.867,22	54,35
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	4.694.813	4.694.813	4.303.541	25.864,80	91,67
4. Ohiko transferentziak	17.378.532	17.378.532	17.311.197	104.042,39	99,61
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak	9.048.226	9.048.226	8.409.119	50.539,82	92,94
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital-transferentziak	59.491.131	59.491.131	50.597.670	304.098,12	85,05
8. Finantza aktiboen aldaketa	0	42.115.735	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	111.157.595	153.273.330	103.524.933	622.197,38	67,54

GASTUAK	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin-betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainketak	12.948.150	12.948.150	13.715.132	82.429,60	105,92
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	18.070.811	18.070.811	20.410.563	122.669,95	112,95
3. Korrituak	2.506.113	2.506.113	2.508.286	15.075,10	100,09
4. Ohiko transferentziak	20.057.432	20.057.432	22.196.506	133.403,69	110,66
6. Inbertsio errealak	36.977.016	79.092.751	73.895.841	444.122,95	93,43
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	1.601.645	1.601.645	1.601.645	9.626,08	100,00
GASTUAK, GUZTIRA	92.161.167	134.276.902	134.327.973	807.327,37	100,04

ALDEAK	18.996.428	18.996.428	-30.803.040	-185.129,99	
---------------	-------------------	-------------------	--------------------	--------------------	--

V.2. BALANTZE-INBENTARIOAREN EGOERA

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldiaren ixtea	Deskribapena	Ekitaldiaren ixtea
Ibilgetua	582.702.396	Noberaren funtsak	503.814.088
1 Ibilgetu materiala	347.598.542	1 Ondarea eta erreserbak	503.814.088
2 Ibilgetu ez-materiala	9.492.618	2 Eskuratutako ond. eta eskubideak	-1.486.211
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	146.796.279	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	13.463.621
4 Herri-ondasunak	78.814.957		
5 Finantza ibilgetua	0	Epe luzeko zorrak	63.708.930
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	63.708.930
Ibilkorra	8.886.192	Epe laburreko zorrak	24.065.560
7 Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	3.420.385	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	4.079.379
8 Aurrekontuko zordunak	2.995.039	6 Aurrekontuko hartzekodunak	19.986.191
9 Finantza kontuak	2.470.768		
Aktiboa, guztira	591.588.588	Pasiboa, guztira	591.588.588


V.3. EMAITZA EKONOMIKOAREN EGOERA

ZOR		HARTZEKO	
Deskribapena	Ekitaldiaren ixtea	Deskribapena	Ekitaldiaren ixtea
61 Langileen gastuak.	13.715.132	70 Salmentak	4.303.541
62 Gastu finantzarioak	2.317.076	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	8.409.119
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	20.410.563	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	20.396.636
67 Ohiko transferentziak	22.196.506	73 Errentaren eta ondarearen gaineko ohiko zergak	2.506.770
68 Kapital-transferentziak	0	76 Ohiko transferentziak	17.311.197
69 Kalkulaturiko gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
D80 Ekitaldiaren emaitza korrante positiboa	5.712.014	H80 Ekitaldiaren emaitza korrante positiboa	0
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0	H83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak	0
D83 Finantza aktiboen salmentaren galerak	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	48.651.900
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	29.285.055	H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	13.654.831
D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	0		

Lan hau egiteko ardura izan duen auditore Francisco Javier Sesma Masa jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	